EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Vivienda
Dirección de Vivienda y Arquitectura

ISEK

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO PARA LA PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD

2018KO URTEKO TXOSTENA

2019ko abenduaren 11ko ohiko bilkuran onartutako dokumentua

URTEKO TXOSTENA
2018. URTEA

ISEK - IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

AURKIBIDEA

1. **AURREKARIAK**

2. **IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK**
   2018ko martxoaren 26ko ohiko osoko bilkura

3. **IRISGARRITASUNAREN ARLOAN LAGUNTZEKO JARDUKETAK**
   - 3.1. Jakinarazitako salbuespenak
   - 3.2. Izapidetutako desafekzioak
   - 3.3. Aholkuak emateko eta kontsultak ebazteko zerbitzua
     - A- Kontseiluari egindako jakinarazpenak
     - B- Kontseiluari aurkeztutako salaketak
     - C- Kontsultak

4. **IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ESTRATEGIA**

5. **IRISGARRITASUNAREN ARLOAN AURRERA ERAMANDAKO JARDUKETEI BURUZKO INFORMAZIOA**

1. eranskina **2018ko martxoaren 26ko ohiko osoko bilkuraren akta**
2019ko urtarrilaren 31ko ohiko osoko bilkuran onartua

2. eranskina **ISEKi jakinarazitako salbuespenen indizea**

3. eranskina **ISEK osatzen duten erakundeek egindako jarduketei buruzko informazioa**

1. AURREKARIAK

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea hiri-inguruneareN, espazio publikoen, eraikinen, garraiobideen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasuna bermatzeko helburuarekin onartu zen, pertsona guztiek modu autonomoan gozatzeko aukera izan zezaten, eta, bereziki, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo beste edozein muga psikiko edo sentsorial (aldi baterakoa edo iraunkorra) dituztenek.

Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen V. tituluak, 24. artikuluan, IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA sortzen du, kontsulta- eta partaidetza-organo gisa, eta bertan honako hauek egongo dira ordezkatuta: EAEko Administrazio publikoak, irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonen eskubideak defendatzeko helburua duten elkarte-erakunde adierazgarrienak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erakundeak, sustatzaileen eta eraikitzaileen elkarte adierazgarrienak, eta Arkitektoen, Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen eta Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzaren Elkargoak. Aipaturiko Kontseiluaren osaera eta egitura lege horren beraren 25. artikuluan daude aurreikusita.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira, 26. artikuluan xedatutakoaren arabera:

a) Urtero txosten bat egitea, lege honek arautzen duena zenbateraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
b) Irisgarritasunaren arloan eskumena duten organoei aholkuak ematea eta jarduteko irizpideak proposatzea, Legean xedatutakoaren arabera.
c) Bere antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzea.
d) Agintzen zaizkion gainerako eginkizun guztiak.

Horiek horrela, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak esleitutako eginkizunak betez, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2018ko jardueren txostena aurkezten da jarraian.

2. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK

2018ko martxoaren 26ko ohiko osoko bilkura

2018ko martxoaren 26an, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2018. urteari zegokion ohiko osoko bilkura egin zuen.

Ohiko osoko bilkura horren akta 2019ko urtarrilaren 31ko bilkuran onartu zen, eta dokumentu honen **1. ERANSKINEAN** dago jasota.

3. IRISGARRITASUNAREN ARLOAN LAGUNTZEKO JARDUKETAK

Orain arte, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikitako egungo Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzari egokitu zaio Batzorde Iraunkorrari eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari laguntza tekniko eta juridikoko zerbitzua ematea, EAEn indarrean dagoen irisgarritasun-araudiarekin lotutako hainbat gaitan.

Jarraian, 2018an egin diren jarduketak deskribatzen dira.

3.1. ISEKi jakinarazitako salbuespenak

68/2000 Dekretuaren V. eranskineko ("Eraberritze-, zabalkuntza- eta aldaketa-obrak urbanizazio eta eraikinetan") 3.3 artikuluan ezarritakoa betez, 2016an orotara **147 salbuespen** komunikatu zaizkio Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari.

LURRALDEA	ESPEDIENTEAK	UDALERRIAK
ARABA	22	4
BIZKAIA	68	16
GIPUZKOA	57	18
GUZTIRA	**147**	**38**

Salbuespenon zerrenda dokumentu honen **2. ERANSKINEAN** dago jasota.

3.2. ISEKen Idazkaritzak izapidetutako desafektazioak

Batzorde Iraunkorreko Laguntza Zerbitzuak eta Idazkaritzak aurretxostena egin dute, eta Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzak euskarria eman die Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak kudeatutako etxebizitza-sustapen libreko desafektazio-espedienteei.

2018an, hamazazpi (17) eskaera-espediente izapidetu dira; hau da, 13 etxebizitza desafektatu dira, eta 32 garaje-plaza bizitegi-eraikinetan.

LURRALDEA	ETXEBIZITZAK	GARAJE-PLAZAK
ARABA		
BIZKAIA	8	16
GIPUZKOA	5	16
GUZTIRA	**13**	**32**

DES	ESKATZAILEA	DESAFEKTATUTAKO ELEMENTUAK	SUSTAPENA
01.2018	NEINOR NORTE SLU	1 ETXEBIZITZA	60 etxebizitza libre, garaje-plaza eta trasteleku; Jardines de Zabalgana sustapena; Leioako (Bizkaia) Torresoloko 44. sektoreko 2A1 lurzatia.
02.2018	NEINOR NORTE SLU	1 ETXEBIZITZA	60 etxebizitza libre, garaje-plaza eta trasteleku, Jardines de Zabalgana sustapena, Leioako (Bizkaia) Torresolo auzoko 44. sektoreko 2A1. lurzatian.
03.2018	ADANIA	-	EZ DITU BALDINTZAK BETETZEN
04.2018	NEINOR NORTE SLU	1 ETXEBIZITZA 3 GARAJE-PLAZA	54 etxebizitza libre, lokal, trasteleku eta garaje; SANTURTZIko (Bizkaia) IKASLE eraikina; Manuel Pereda kalea 11.
05.2018	NEINOR NORTE SLU	3 GARAJE-PLAZA	64 etxebizitza libre, lokal eta trasteleku eta 144 garaje; Portugaleteko (Bizkaia) Ferdinand Arnodin kalea (garai bateko 105. UP); San Roke Homes sustapena.
06.2018	LARRAMENDI	1 ETXEBIZITZA 3 GARAJE-PLAZA	48 etxebizitza libre, lokal, trasteleku eta garaje; Tolosako GOROSTIDI –VOITH RE-7 eremuko 2 UE2 lurzatia.
07.2018	NEINOR NORTE SLU	1 GARAJE-PLAZA	51 etxebizitza libre, trasteleku eta garaje; Durangoko (Bizkaia) UE-18 MIKELDI egikaritze-unitateko B2 lurzatia.
08.2018	GOIALDE	2 GARAJE-PLAZA	29 etxebizitza libre, trasteleku eta garaje; UE-24 egikaritze-unitatea; Basauriko Urbi kalea 11 bis.
09.2018	INMOGROUP	7 GARAJE-PLAZA	162 etxebizitza libre, garaje-plaza eta trasteleku; MIRIBILLAko (Bilbo) 910 banatze eremuaren plan partzialeko SZR.16 bizitegi-lurzatia.
10.2018	HIRIERDI	1 ETXEBIZITZA 1 GARAJE-PLAZA	38 etxebizitza libre, garaje-plaza, lokal eta trasteleku; Eibarko Egogain kalea 22-24-26 (UAR-44 A Alfa-San Andres bizitegi-lurzati eraikigarria).
11.2018	INMOGROUP	3 ETXEBIZITZA	162 etxebizitza libre, garaje-plaza eta trasteleku; MIRIBILLAko (Bilbo) 910 banatze eremuaren plan partzialeko SZR.16 bizitegi-lurzatia.
12.2018	UTE TXOMIN BERRIA	1 ETXEBIZITZA 7 GARAJE-PLAZA	TXOMIN BERRIA bizitegigunea; UE 1 egikaritze-unitateko A.300.4A/LO.05 eta A.300.7/LO.05 lurzatiak. A.U. "LO.05 Txomin Enea" hirigintza esparruko 1. jarduketa integratua, Donostiako udal-mugartean.

DES	ESKATZAILEA	DESAFEKTATUTAKO ELEMENTUAK	SUSTAPENA
13.2018	UTE TXOMIN BERRIA	1 ETXEBIZITZA 3 GARAJE-PLAZA	TXOMIN BERRIA bizitegi multzoa, UE 1 eremuko A.300.4B/LO.05 eta A.300.3/LO.05 lurzatietan. A.U. "LO.05 Txomin Enea" hirigintza esparruko 1. jarduketa integratua, Donostiako udal-mugartean.
14.2018	VIVIENDAS DE VIZCAYA	1 ETXEBIZITZA 1 GARAJE-PLAZA	38 etxebizitza, garaje, trasteleku eta lokal; Anboto pasealekua 8, 10A eta 10B helbide; UR7 NAFARROA sektoreko A7 lurzatia, Zornotzako (Bizkaia) udal-mugartean.
15.2018	ETXA SA	1 ETXEBIZITZA 2 GARAJE-PLAZA	80 etxebizitza, garaje, trasteleku eta merkataritza-lokal; Donostiako Podavines kalea 1 eta 3.

3.3. Aholkuak emateko eta kontsultak ebazteko zerbitzua

Zerbitzu honek EAEn indarrean dagoen irisgarritasun-araudiaren interpretazioari buruzko kontsulta eta salaketa juridiko eta teknikoei erantzuten die.

A.- Irisgarritasunari buruzko aurreikuspenen inguruan Kontseiluari egin zaizkion **komunikazioak**:

ZBO	ESKATZAILEA	GAIA	OHARRAK
01.2018	Arartekoa	Arartekoak informazioa eskatu zuen hiriguneetan oztopoak kentzeko jarduketak finantzatzeko laguntzei buruzko erreferentzia-txostenaren inguruan.	
02.2018	partikularra	Garaje-lurzati erreserbatuak esleitzeko araudiari buruzko informazioa.	
03.2018	Espazio publikoetako terrazak		Txostenerako proposatuzen.
04.2018	Fekoor	Igogailuak ezartzeko irizpideak eskatu zituen Arrasateko (Gipuzkoa) Santa Teresa kalea 4 helbiderako.	
05.2018	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	Garraioaren arloko irisgarritasunari buruzko txostenean hartu zuen parte.	
06.2018	AUBIXIA Fundazioa	"Inguruneak eta Dementzia" FOROan hartu zuen parte.	

ZBO	ESKATZAILEA	GAIA	OHARRAK
07.2018	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	"Kide anitzeko organoen ebaluazioa eta hobekuntza" proiektuaren barruko inkestan hartu zuen parte.	
08.2018	Eusko Legebiltzarra	Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen 20 urteei buruzko balantzearen eta horren etorkizunaren inguruko jardunaldian hartu zuen parte.	
09.2018	Euskadi Lagunkoia	Adineko pertsonentzako etxebizitza lagunkoierako gidan hartu zuen parte.	
10.2018	Eginaren Eginez	Etxebizitza-erreserbarako eskubidea baliatzeko prozeduraren gaineko erregelamenduzko garapena eskatu zuen.	

B.- Irisgarritasunari buruzko aurreikuspenen inguruan Kontseiluari aurkeztu zaizkion **salaketak**:

Ekitaldi honetan salaketa bat jaso da zerbitzu honetan.

SAL	ESKATZAILEA	GAIA	
01.2018	Sí se puede, SANTURTZI	Irisgarritasun-baldintzak urratzen dira Santurtziko udaletxean eta udalak eskaintzen dituen hainbat zerbitzutan.	

C.- Telefonoz edo posta elektronikoz egindako kontsultak, irisgarritasunari buruzko aurreikuspenei eta beste araudi batzuekin duten inplikazioari buruzkoak. Era berean, arkitektura-oztopoak kentzeko esku-hartzeen bidez irisgarritasuna hobetzeko aurreikusitako dirulaguntzen lerroei buruzkoak eta interpretazio-irizpideei buruzko informazioa ematekoak; irizpide horiek, denborak aurrera egin ahala, irisgarritasuna benetan aplikatzeko irizpidetzat hartu dira.

2017an, **328 kontsultari** erantzun zaie orotara.

Zerbitzuak erantzundako kontsultak aztertu ondoren, bai telefonoz artatutakoak, bai txosten baten xede izan direnak, honako ondorio hauek atera dira:

ARAUDIA	Irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren gaineko informazioa eskatu dute.
	Herritarrek, oro har, ez dakite 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua indarrean sartu dela, eta ez dakite haren irismena zein den ere.
	Txostena idatzi duten teknikariek ez dakite zer alde dagoen irisgarritasun-baldintzen, praktikotasun-baldintzen eta salbuespen-baldintzen artean.
	Indarrean dauden arauak han-hemenka egoteak nahasmena sortzen du eta arauen aplikazio-hierarkia ez dago oso garbi.
	Autonomia-erkidegoko eta Estatuko araudiaren arteko arau-gatazkak planteatu dituzte.
JABEEN ERKIDEGOAK	Bizitegi-eraikinetan arkitektura-oztopoak kentzeko esku-hartzeen irismenari eta eskakizunari buruzko alderdi teknikoak.
	Jabetza Intelektualaren Legeari atxikitako akordioak formalizatzeari buruzko kontsultak Eusko Jaurlaritzako Bizilagun zerbitzura bideratu dira.
PROZEDURAK	Eraikinak irisgarritasun-araudira egokitzeko obrak egiteko dirulaguntza-lerroen gaineko informazioa.
	Etxebizitzak eta garaje-plazak desafektatzeko prozedurari buruzko informazioa.
	Araudia interpretatzeko zenbait irizpide argitaratzeko eskatzen dute, batik bat udal-teknikariek, salbuespenak noiz onartu behar dituzten jakiteko.

4. IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ESTRATEGIA

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 20ko 20/1997 Legea bereziki aurreratua izan zen bere garaian, zalantzarik gabe; izan ere, gizarte-ordena nagusiari jarraitu beharrean, lehen urratsak egin zituen diseinu unibertsalaren helburua lortzeko bidean. Hala, pertsona guztien askatasun- eta berdintasun-balioak bermatzera jo zuen, egunerokotasunean oztopoak aurkitzen zituzten pertsonen eskubideak aldeztuz.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2018ko abenduaren 4an egindako osoko bilkura berezian, Iñigo Urkullu lehendakariak adierazi zuen IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIA baten oinarriak ezarri behar direla gure autonomia-erkidegoan legegintzaldi honetan.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak (ISEK) hartu du bere gain, Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzaren bitartez, estrategia horren diseinuari ekiteko ardura.

"Bide berri bat urratu dugu, irisgarritasuna lehentasunezko eta zeharkako jarduketa gisa geureganatzean. Hala, GURE ERKIDEGOAN ESTRATEGIA UNIBERTSAL bat izanik, integrazioa lortzen ahaleginduko gara lurralde- eta sektore-politiketan, inplikatutako eragile guztiek definitutako ekintza-planen bidez".

Hori lortzeko, ezinbestekoa da eragileen koordinaziotik, partaidetzatik eta zeharkakotasunetik jardutea. Kontseilu hau, beraz, aurrerapauso bat da, aipatutako jarduera-esparru guztiak ordezkatuta baitaude bertan.

Mugarri garrantzitsuen artean, aipatzekoa da 2018an Euskadin Irisgarritasun Unibertsalaren Ebaluazioa egiteko lanei hasiera ematea planteatu zela.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak irisgarritasuna sustatzeari begira egingo dituen urteko txostenetan, gero Legebiltzarrari bidaliko dizkion horietan, Irisgarritasunaren Euskadiko Estrategia eta Ekintza Plana lantzen eta ezartzen egindako aurrerapenei buruzko informazioa jasoko du.

5. IRISGARRITASUNAREN ARLOAN AURRERA ERAMANDAKO JARDUKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak, 2012ko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkuran, foru-aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari urtero txosten bana eskatzea erabaki zuen, irisgarritasunaren arloan egiten dituzten jarduketen berri eman dezaten. Txostenotan euren eskumeneko sail, zuzendaritza eta erakundeetan egindakoa bildu behar dute, informazio hori Kontseiluak Eusko Legebiltzarrera urtero bidaltzen duen txostenean sartu ahal izateko –Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 2/1997 Legeak xedatutakoari jarraikiz–.

Horrenbestez, akordio hori betez, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak irisgarritasunaren arloan 2016an zehar euren eskumenen baitan aurrera eramandako jarduketen txostena eskatu zien hiru foru-aldundiei

eta Eusko Jaurlaritzako sail, zuzendaritza eta erakunde guztiei (irisgarritasun-planak, esku-hartze materialak, dirulaguntza-deialdiak, jardunaldiak...), ostean informazio hori guztia Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren urteko txostenean sartzeko.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren eskaerari erantzun dioten erakundeek emandako informazioa honako dokumentu honen **3. ERANSKINEAN** jaso da.

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
- Lan eta Justizia Saila
- Euskal Gorrak - Gorren Elkarteen Euskal Federazioa

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 9an

Iñaki Arriola López jauna

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidentea

Pablo García Astrain jauna

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkaria

1. eranskina

2018ko martxoaren 26ko ohiko osoko bilkuraren akta

2019ko urtarrilaren 31ko ohiko osoko bilkuran onartua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Vivienda
Dirección de Vivienda y Arquitectura

ISEK

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO PARA LA PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD

2018KO MARTXOAREN 26KO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

2019ko urtarrilaren 31ko ohiko bilkuran onartutako dokumentua

DATA: 2018ko martxoaren 26a, astelehena

ORDUA: 11:00 – 13:00

TOKIA: 6. aretoa, Lakua II eraikineko behe-solairua, EUSKO JAURLARITZA

Donostia kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ

GAI-ZERRENDA

1. Osoko bilkurari hasiera ematea, Kontseiluko presidente Iñaki Arriola jaunaren eskutik

2. Kontseiluak 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuraren akta onartzea

3. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2016ko ekitaldiari dagokion urteko txostena onartzea

4. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2017ko abenduaren 4an egindako bilkura berezia balioestea

5. Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia garatzeko eta ezartzeko lan-plana proposatzea

    - Planteamendu orokorra
    - Kontseiluari laguntza teknikoa emango dion IKEI enpresa aurkeztea
    - Lehen fasearen plangintza: hasierako egoeraren analisia eta diagnostikoa

6. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren korporazio-irudi eguneratua aurkeztea

7. Galderak eta eskaerak

8. Osoko bilkurari amaiera ematea, Kontseiluko presidente Iñaki Arriola jaunaren eskutik

BERTARATUAK

IGNACIO ARRIOLA LÓPEZ JAUNA	INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
PABLO GARCÍA JAUNA	ETXEBIZITZA ETA ARKITEKTURAKO ZUZENDARIA. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
MIKEL GURUTZEAGA JAUNA	GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARIA. EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
AITOR URIARTE UNZALU JAUNA	JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARIA. SEGURTASUN SAILA
ELENA PEREZ BARREDO ANDREA	LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO ZUZENDARIA. LAN ETA JUSTIZIA SAILA
EMILIO SOLA JAUNA	GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARIA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
MARI LUZ RUIZ ANDREA	ZERBITZUEN ZUZENDARIA. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA
OLATZ ZARAMENDI ANDREA	ADMINISTRAZIOKO SAILBURUORDEA. HEZKUNTZA SAILA
NEKANE MURGA ANDREA	PLANGINTZA, ANTOLAMENDU ETA EBALUAZIO SANITARIOKO ZUZENDARIA. OSASUN SAILA
TXARO RODRIGO ANDREA	MENDEKOTASUNAREN ETA DESGAITASUNAREN ARRETAKO ZUZENDARIA. GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIA
FERRÁN SOLÉ JAUNA	ARKITEKTURA-ZERBITZUKO TEKNIKARIA. ARABAKO FORU-ALDUNDIA
SERGIO MURRILLO JAUNA	PERTSONEN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEKOTASUNARI ARRETA ESKAINTZEKO ZUZENDARI NAGUSIA. BIZKAIKO FORU-ALDUNDIA
GORKA ZUBIAURRE SASIA JAUNA	EUDEL. BARAKALDOKO UDALA
JUAN CARLOS SOLA JAUNA	ELKARTEAN-FEKOOR
CONCEPCIÓN FRANCO ANDREA	ELKARTEAN-EGINAREN EGINEZ
NORMA ANDRADE ANDREA	ELKARTEAN. ELKARTU
RAQUEL BARROSO ANDREA	ELKARTEAN. ELKARTU
ARANTZA URIARTE ANDREA	BIRGAIKUNTZA-TEKNIKARIA. ONCE

ASCENSIÓN DEL PUEYO ANDREA	BIRGAIKUNTZA-TEKNIKARIA. ONCE
RICARDO PÉREZ SANTOS JAUNA	IRISGARRITASUN-BATZORDEA. EUSKAL GORRAK – GORREN ELKARTEEN EUSKAL FEDERAZIOA (zeinu-hizkuntzaren interpretea lagun duela).
JOSE MANUEL ODRIOZOLA JAUNA	EUSKADIKO ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN FEDERAZIOA. FEDERPEN
JORGE FERNANDO MAGÁN JAUNA	EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA
M. JOSÉ IPARRAGUIRRE ANDREA	APAREJADOREEN ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGOA. ARABAKO ORDEZKARITZA
MARIA VALENZUELA ANDREA	BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIEN ELKARGOA
BLANCA IBÁÑEZ MOYA ANDREA	AHOLKULARI JURIDIKOA. EUSKAL HERRIKO KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN BATASUNA

GONBIDATUAK

MONDRAGON UNIBERTSITATEA	DANIEL JUSTEL JAUNA
	ARANTZA GONZÁLEZ DE HEREDIA ANDREA
IKEI. RESEARCH & CONSULTANCY	ANTONIO CORRAL JAUNA
	LAURA GALLO ANDREA
	JESSICA DURÁN ANDREA

KONTSEILUAREN LAGUNTZAILEAK

AGUSTÍN DE LORENZO JAUNA	ETXEBIZITZA ETA ARKITEKTURA ZUZENDARITZA. BATZORDE IRAUNKORREKO IDAZKARIA
MERCEDES FDZ. URCEY ANDREA	ETXEBIZITZA ETA ARKITEKTURA ZUZENDARITZA

BILKURAREN NONDIK NORAKOAK

Deialdian adierazitako egunean eta tokian, arestian aipatutako pertsonak bertan direla, eta bilkurari hasiera emateko behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, 11:05ean eman zaio hasiera Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren (ISEK) ohiko osoko bilkurari.

1. Bilkurari hasiera ematea

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak, Ignacio Arriola jaunak, hasiera eman dio bilkurari, eta jarraian, aurkezpen-erronda bat egin da.

Bilkurara bertaratu diren Kontseiluko kideen eta gonbidatuen aurkezpen-erronda bukatu eta gero, deialdian aurreikusitako gai-zerrendari heldu zaio:

2. Kontseiluak 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuraren akta onartzea

Itzulpena bidali ondoren eta Kontseiluko kideei Matxalen Acasuso andrea –Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko ordezkaria– bertaratuen artean gehitzea falta zela jakinarazi ondoren, Kontseiluaren laguntza teknikoak jakinarazi du kontu hori konpondu egin dela eta halaxe jasoko dela urteko txostenean.

Bestelako zehaztapenik egin ez denez, onartu egin da Kontseiluak 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuraren akta.

3. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2016ko ekitaldiari dagokion urteko txostena onartzea

Kontseiluaren laguntza teknikotik zehaztu denez, 2017ko azaroaren 6ko ohiko bilkuraren gai-zerrendako puntuetako bat zen urteko txostena Kontseiluko kideen aurrean aurkeztea, eta geroztik ez da ez ekarpenik, ez aldaketarik jaso.

Bestelako zehaztapenik egin ez denez, onartu egin da 2016ko ekitaldiari dagokion urteko txostena, eta Eusko Legebiltzarrari helaraziko zaio.

4. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2017ko abenduaren 4an egindako bilkura berezia balioestea

Kontseiluko idazkariak, Pablo García Astrain jaunak, Kontseiluak 2017ko abenduaren 4an egindako bilkura bereziaren ondorioak aurkeztu ditu. Lehendakaritzan egin zen bilkura hori, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Manuel Lezertua arartekoa bertan zirela.

Aurkezpenean, kide guztien adostasuna lortu zuten hiru puntu nabarmendu ditu, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen inguruan:

- Lege aitzindari eta aurreratua izan zen, eta irisgarritasunaren arloan aurrerapen itzela ekarri zion gure erkidegoari.
- Ordutik hona igaro diren hogei urteotako balioespena positiboa da, baina oraindik ere bidea dago egiteke irisgarritasunaren arloan.
- Gobernuak konpromiso bat hartu zuen **Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia** garatzeko, eta halaxe jasotzen da lehendakariaren adierazpenean. Hala, bide malkartsu horretan eta legearen betetze-mailan sakontzen saiatuko da. Zeharkakoa eta diziplina anitzekoa da estrategia.

García Astrain jaunak adierazi du Kontseiluak Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategia bultzatuko dela, eta, horregatik, ohi baino lehenago deitu dela osoko bilkura hau, lehen urratsak emateko asmoz.
Laguntza teknikoa ere egongo dela gaineratu du; IKEI enpresak, bilerara bertaratu denak, emango du laguntza hori, eta lanak dinamizatzeaz arduratuko da. Hala, Kontseiluko kide guztiek hartuko dute parte, hurrengo puntuan adierazi bezala.

Ekarpenen txanda ireki ondoren, presidente jaunak gai-zerrendako hurrengo puntuari heldu dio, Kontseiluko kideek inolako ekarpenik egin ez dutela ikusita.

Akta honen 1. eranskin moduan jaso da lehendakariak Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen 20. urteurrenean Euskadiko Irisgarritasun Kontseiluan egindako adierazpena.

5. Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia garatzeko eta ezartzeko lan-plana proposatzea

IKEI enpresaren ordezkariek hartu dute hitza Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategia egiteko lanei hasiera emateko lan-programa aurkezteko. Lan-programa hori Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzarekin batera egin da.

Lan-plana
- 2018. urtean zehar. Irisgarritasunaren diagnostikoa Euskadin.
- 2019. urtean zehar. Euskal Estrategiaren gidalerroak.
- 2020. urtean zehar. Ekintza-plana.

2018ko lehen lan-faseak lau lan-saio izan ditzala planteatu da; hots, Batzorde Iraunkorra prozesuaren hasieran eta amaieran bilduko da, eta tartean beste bi saio egingo ditu, bat ingurune publikoko irisgarritasuna aztertzeko eta bestea ingurune pribatuko irisgarritasuna lantzeko.

Kontseiluko idazkariak, Pablo García jaunak, zehaztu du Batzorde Iraunkorraren bilerak egingo direla lan egiteko modu aproposa delako, Kontseiluaren adierazgarri delako eta estatutuetan jasotzen denarekin bat datorrelako.

Batzorde Iraunkorraren osaerari buruzko eztabaidari eman zaio hasiera. Hala, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunak batzordearen barruan egotea eskatu du.
ELKARTEANeko ordezkariek, bestalde, desgaitasun kognitiboak dituzten pertsonen elkarteen hutsunea sumatzen dela adierazi dute, hala nola AFEDAFES, FEVAS, AFA eta beste batzuena; elkarteok, ordea, borondatez utzi zioten batzordean parte hartzeari.
Foru-aldundien kasuan, eztabaidagaia da hiru aldundiek ordezkari bakarra izango duten ala aldundi bakoitzak bere ordezkaria izango duen.

Kontseiluko presidentearen aburuz, Kontsumitzaileen Batasunaren eskaera onartu egin behar da, eta batzordearen barruan ez dauden elkarteei dagokionez, lantaldeen bitartez hitz egingo dutela adierazi du. Oro har, solaskideak bilatu behar direla azaldu du, lantaldeetan sartzeko; horretarako, kide guztiei eskatu die parte hartzeko.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko kideak, Mikel Gurutzeaga jaunak, iragarri du irisgarritasunaren arloko ponentzia bat sortuko dela Garraio Agintaritzaren bitartez, eta Batzordeak Euskadiko garraio-eragile guztiak hartuko dituela barruan. Hemen egiten ari den lana ponentzian egiten ari denarekin koordinatu beharko litzatekeela gaineratu du.

Bestalde, Etxebizitza Zuzendaritzatik, Agustín de Lorenzo jaunak azaldu du Batzorde Iraunkorrak ez duela onespen-eskumenik; proposamen-eskumena du soilik. Beraz, hark dioenez, Batzorde Iraunkorreko partaideak ez dira halabeharrez batzordeko kide ofizialak izan behar; hau da, beste pertsona batzuk eskuordetu ditzakete, erakunde bakoitzaren izenean parte har dezaten.

Batzorde Iraunkorra honako hauek osatzea proposatu da:

- **Batzordeburua:** Pablo García Astrain jauna. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
- **Idazkaria:** Agustín de Lorenzo jauna. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
- **Batzordekideak:**
    - Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
    - Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Garraio Sailburuordetza.
    - Arabako Foru Aldundiaren ordezkari bat
    - Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari bat
    - Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari bat

- EUDELen ordezkari bat
- ELKARTEANen ordezkari bat
- ONCEren ordezkari bat
- Euskal Gorrak elkartearen ordezkari bat
- FEDERPENen ordezkari bat
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen batasuna

FEDERPENek eskatu du estrategiaren aurkezpenetan bere logotipoa txertatzeko; hain zuzen ere, aurkezpenaren 11. orrialdean.

IKEIk jarraipena eman dio lan-planaren aurkezpenari. Hala, entitate bakoitzak solaskide bat eduki behar duela azpimarratu du; izan ere, fitxa batzuk bidali behar zaizkie informazioa eskatzeko. Fitxa horiek prototipoak direla azaldu du; hau da, entitate bakoitzak nahieran egokitu ditzake egoeraren arabera. Fitxak bete ondoren, apirilaren 20a baino lehen jasotzea aurreikusi da. IKEI enpresa ONCEko ordezkariekin jarriko da harremanetan, proposamen batzuk egin nahi baitituzte fitxak hobetzeko.

EUDELen kasuan, udal guztiei bidaliko dizkie fitxak ahalik eta informazio gehien jasotzeko. Segurtasun Sailak galdegin du eraikin propioen eta 700 pertsonatik gorako edukiera duten joko- eta ikuskizun-lokalen berri ere eman behar al duten; izan ere, eurek egiten dute ikuskapena, baina, oro har, udalaren jabetza dira. IKEIk erantzun duenez, bi kasuak justifikatu beharra dago.

ELKARTEAN konfederazioak eztabaida bat ireki du; hots, diagnostikoaren fasea ez luzatzeko eskatu du, horren konplexutasuna dela medio. Horren ordez, egungo arau-urraketak eta araudiaren gabeziak identifikatzeari ekiteko eskatu du, besteak beste.

Kontseiluko presidenteak aurkeztu berri den plana onartzeko proposatu du. Planaren helburua zein den aipatu du: Euskadiko estrategia bat edukitzea, lehendakariaren beraren konpromisoarekin. Planak, halaber, maila guztietan parte hartzeko bultzada emango dio batzordeari; hau da, egingarriak diren ekintzak bilatuko ditu modu objektiboan aurrera egiteko, egungo egoera hobetzeko eta estrategia bera mugarri bilakatzeko.

Presidente jaunak onartutzat jo du lan-plana, Kontseiluko kideek ez baitute aurkako botorik eman, eta gai-zerrendaren hurrengo puntuari heldu dio.

Akta honen 2. eranskin moduan, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia garatzeko eta ezartzeko lan-planaren laburpen-dokumentua jaso da, Kontseiluko kideei eman zaiena.

6. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren korporazio-irudi eguneratua aurkeztea

Kontseiluaren laguntza teknikoak Kontseiluaren korporazio-irudi eguneratuaren proposamena aurkeztu du. Berritu egin da orain arte erabili den logotipoa.

ISEK | IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO PARA LA PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD

Presidente jaunak onartutzat jo du diseinu berria, eta Kontseiluaren aurkezpen eta paperetan txertatzen joango dela adierazi du.

7. Galderak eta eskaerak

VITORIA-GASTEIZKO TRANBIAREN GELTOKIAK

EGINAREN EGINEZeko ordezkariek esan dute Justizia Auzitegiak epai bat eman zuela 2018ko otsailaren 6an, Bilbon, eta epai horren bidez berretsi egiten dela geltokiaren eremu osoak 1,80 m-ko zabalera librea izateko beharra; ezetsi egin du geltokia egokitzeko ezintasunaren alegazioa, eta ez da egongo epe berririk 2013ko epaia gauzatzeko.
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak jakitera eman du beharrezkoak diren proiektuak ari direla idazten dagoeneko; gainera, obren zuzendaria harremanetan jarriko da Eginaren Eginez elkartearekin. Obrak hirugarren hiruhilekoan amaituko direla aurreikusi da.

BILBOKO TRANBIA

ONCEko ordezkariek Kontseiluari jakinarazi diote Bilbon 11 arriskugune daudela gutxienez, batik bat itsuentzat, oinezkoen eremuak eta tranbiaren bideak gurutzatzen diren guneetan. Bilboko Udalari horren berri eman zitzaion, baina ez du ezer egin arazoa konpontzeko.
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailekoek esan dute ez dakitela Euskal Trenbide Sareak gaiaren berri duen eta, horrenbestez, ONCEren bitartez jakinaraziko zaiola adostu da.

IRISGARRITASUN-TEKNIKARIA

Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzako Agustín de Lorenzo jaunak adierazi du ezin egokiagoa litzatekeela erakunde guztiek irisgarritasunaren gaineko prestakuntza duten langileak edukitzea, eta langile horiek Kontseiluarekin harreman etengabea izatea.

VITORIA-GASTEIZKO AUTOBUS-GELTOKIA

EUSKAL GORRAK federazioak hartu du hitza. Hasteko, babes osoa erakutsi dio bilkuran garatzen ari den ekimenari. Jarraian, inguruan topatzen diren gabeziak nola konpondu bilatu behar dela azpimarratu du, eta ingurune horietako batzuk lehenago ere salatu direla gaineratu du. Adibidetzat jarri du Vitoria-Gasteizko autobus-geltokia, ez baititu betetzen pertsona gorren kolektiboaren eskariak, zeren, besteak beste, ez baita pantailarik jarri bozgorailu bidez ematen diren mezuen azpitituluekin.

ARAUDIA INTERPRETATZEKO IRIZPIDEEN BILDUMA

ELKARTEANek eskatu du telefonozko edo idatzizko kontsultetan ematen diren aplikazio-irizpideak biltzeko, lagungarriak izan daitezke-eta udaletan interpretazio ezberdinak egin daitezen saihesteko. Sustapen Ministerioak Eraikuntzako Kode Teknikoan jaso dituen argibideak jarri ditu adibidetzat, eta adibide horri jarraitzeko proposatu du.

OSASUN-TXARTELA

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak proposamen bat aurkeztu du, Kontseiluak landu dezan. Hain zuzen ere, Osakidetzak osasun-txartel indibidualaren bitartez desgaitasunen bat duten pertsonak erregistratzeko proposatu du, bai eta pertsona horien desgaitasun-gradua/-mota ere. Hartara, ospitaleratuz gero, bitarteko egokituak emango zaizkie.

8. Bilkurari amaiera ematea

Kontseiluko presidenteak, Ignacio Arriola jaunak, eskerrak eman dizkie bertaratutako guztiei, euren presentziagatik, interesagatik eta lanarengatik. Jarraian, bilkuraren nondik norakoak ekarri ditu gogora. Bilkuran, bada, guztion ardura den lan-planari ekitea adostu da, planaren bidez **Irisgarritasun Euskadiko Estrategia** edukitzeko. Hala, gure egin dugun konpromisoa beteko dugula gaineratu du. Halaber, planak partekatua eta zeharkakoa izan behar duela azpimarratu du, eta errealismoz eta ilusioz aurrera egiteko aukera eman behar duela, guztion bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, bilkura amaitutzat eman da 13:00etan.

ETXEBIZITZA ETA ARKITEKTURAKO ZUZENDARIA

Pablo GARCÍA ASTRAIN JAUNA

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

Ignacio María ARRIOLA LÓPEZ JAUNA

1. eranskina

Lehendakariak Euskadiko Irisgarritasun Kontseiluan egindako adierazpena, Irisgarritasuna Sustatzeko Legea onartu izanaren 20. urteurrena dela-eta.

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA ONARTU IZANAREN 20. URTEURRENA OSPATUKO DUEN IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAN LEHENDAKARIAK EGINGO DUEN ADIERAZPENA

2017-12- 04 Lehendakaritza

Ingurune fisikoen eta komunikaziokoen irisgarritasuna, funtsezko faktorea da, herritar guztiek oinarrizkotzat jotzen diren eskubideak gozatu ahal izateko.

1998ko abenduaren 4an, Eusko Legebiltzarrak, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea onartu zuen. Lege hori aitzindaria izan zen Espainian zein Europan. Horren bidez, pertsona guzti-guztiak gizartearen zein komunitatearen bizitzan integratzea eta parte hartzea errazten zen; eta, gaur egun ere, halaxe da. Arau hori, batez ere, egunero beren eskubideak baliatzeko aukera oztopatuta ikusten duten pertsonei dago zuzenduta. Izan ere, oztopo fisikoek edo komunikaziokoek berarien ohiko jarduna eragozten dute.

Lege horrek bide baten hasiera ekarri zuen. Araua garatzeak eta modu eraginkorrean aplikatzeak ekarri du, Euskadin harrezkero sortu diren oin berriko eraikinek diseinuan bertan txertatzea guztiontzat irisgarriagoak izateko irizpideak. Lege honi esker ere, desgaitasuna duten pertsonei egokitutako etxebizitza kopuru zehatz bat ezartzen da, etxebizitzen sustapen berrietan (bai pribatuetan bai publikoetan). Azken horrek, gainera, dotazioak bikoiztu egin ditu.

Era berean, hiri-espazio asko berriro konfiguratzea sustatu du; hasteko, ingurune irisgarria bihurtuta; eta, geroago, adiskidetsua. Hau guztia lortzeko, udalerriek gauzatutako irisgarritasun-planak baliatu dira. Erakunde horiek Eusko Jaurlaritzaren etengabeko laguntza jaso dute, urte hauetan zehar.

Horretaz gain, Legeak azkenik jarri zuen martxan Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua. Kontseilu hori erakundeena ez ezik, herritarrena ere bada. Erakundeena da, Eusko Jaurlaritzako sailen, foru-aldundien eta udalen ordezkaritza izateagatik. Baina partaidetza onartzen duen kontseilua ere bada, Legea onartu baino askoz lehenago desgaitasuna duten pertsonen eskubideak aitortzearen alde lan egiten zuten hainbat kolektiboren presentzia zabala ere baitu. Legea onartu ondoren ere, horren alde egiten jarraitu dute, urtez urte, kontseilu honetan gogorarazi baitute irisgarritasunaren arloan zer dagoen egin gabe, administrazio publikoen autokonplazentziaren susmorik txikiena ere saihestuta.
Gaur, lege horren hogeigarren urteurrena ospatzen ari gara, baina arauaren betetze-maila handitu beharra dago; izan ere, nahiz eta lege horren garapenean eta ezarpenean zalantzarik gabeko aurrerapenak izan diren, oraindik ere dirauten hutsuneak eta itzalak saihestu behar dira.

Desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntzan aurrera egin ahal izateko, eta, batez ere, pertsona guztien eskubideen erabilera hobetu eta bermatzeko, legealdi honetan, gure autonomia-erkidegoan, Irisgarritasun Unibertsalerako Estrategia baten oinarriak ezarri behar dira.

Euskadi guztiz irisgarria izatea ahalbidetuko duen ibilbide-orri bat behar da: bertako hiri-espazioetara, bertako eraikin publikoetara, bertako lantokietara, bertako etxebizitzetara, eta abarretara iristeko, baita komunikazio digitalaren eremu berriek irekitzen dituzten ingurune ez-fisikoetara ere. Irisgarritasun kontzeptu berri bat definitu behar dugu eta, horren bidez, edozein diskriminazio mota saihestea ahalbidetuko da, eta edonori bermatuko zaio, gure gizarteko gehienek dagoeneko gozatzen dituzten eta bizitza sozialarekin lotzen diren espazio, ondasun eta zerbitzuak jasotzeko aukera.

Azken finean, herritar guztiek beren eskubide guztiak baliatzeko eskubideak bermatzea da helburua. *Hanna Arendt* andrearen esanetan "eskubideak izateko eskubidea" bermatzea.

Irisgarritasun Unibertsalerako Euskal Estrategia modu transbertsalean, diziplina anitzetan eta sektore anitzetan garatu behar da, guztion gaia baita: zerbitzu publikoetatik etxebizitzara, lan mundua, komunikazioa eta aisialdia barne. Desgaitasuna duten pertsonek aurkezten dituzten erreklamazioetan jasotzen den irisgarritasun eskakizuna, kolektibo hauen mugetatik haratago doa eta pertsona guztietara eta bizitzaren eremu guztietara zabaldu ahal den eskari unibertsala da.

Horren ondorioz, estrategia hau ez da desgaitasuna duten pertsonentzat diseinatu behar, haiekin batera baizik. Gainera, herritarrei aukera ematen die, Euskadikoa gizarte integratzaileagoa eta zuzenagoa bihurtzeko, gizarte modernoagoa eta hobea, alegia.

Euskadi irisgarri eta integratzaile hori lortzeko, eguneroko zailtasun eta oztopoak inork baino hobeto ezagutzen dituzten kolektibo eta elkarteekin batera lan egin beharra dago. Horrela, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua estrategia horren eragilea izango da. Hala ere, irisgarritasun unibertsalari buruzko herritarren kontzientziazioa ere sustatu beharra dago, ingurune fisikoak behar duen transformazioa ahaztu gabe.

Azkenik, ezinbestekoa da irisgarritasun unibertsalaren erronka gure gizartearen aukeratzat jotzea eta gure egunerokotasunean txertatzea: kalea zeharkatzetik bertatik zientziaren eta teknologia berrien garapenera; etxebizitza diseinatzetik ospitalera, lantokira edo aisaldiko lekura sartu artekoa.

Berdintasuna, eskubideak eta aukerak izateko baldintzak hobetzeko irisgarritasuna. Edozertarako irisgarritasuna edonorentzat.

Euskadik aurrez aurre du irisgarritasun unibertsala sustatzeko erronka, 1997ko Euskal Legeak 20 urte betetzean

- **"Pertsona guztiei eskubide guztiak bete-betean eskuratzeko eta bizitzaren esparru guztietara iristeko aukera bermatuko dien irisgarritasunaren kontzeptu berri bat definitu behar dugu", adierazi du Urkullu lehendakariak Jaurlaritzak proposatutako adierazpenean.**

- **Arriola sailburuaren iritziz, Irisgarritasuna Sustatzeko Legea bi hamarkadatan aplikatzen egindako aurrerabidearen ondoren, "iritsi da jauzi kualitatiboa egiteko garaia".**

- **Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak ohiz kanpoko bilera egin du gaur, Lehendakaritzaren egoitzan, urteurrena ospatzeko.**

Urkullu lehendakariak Eusko Jaurlaritzaren izenean planteatu du gaur legealdi honetan "gure Erkidegoan Irisgarritasun Unibertsalerako Estrategiaren oinarriak" ezartzeko erronka, Euskadi erabat irisgarria lortzeko, hiri-espazioei, eraikin publikoei, lantokiei eta etxebizitzei dagokienean ez ezik, komunikazio digitalaren aukera berriek irekitzen dituzten ingurune ez-fisikoei eta herritarren eskubideen osotasunari dagokienean ere. "Era guztietako diskriminazioak saihestea ahalbidetuko duen irisgarritasunaren kontzeptu berri bat definitu behar dugu, gure gizartearen gehienak dagoeneko gozatzen dituen eta bizitza sozialari berari lotzen zaizkion espazio, ondasun eta zerbitzuak jende guztiarentzat erabat irisgarriak izan daitezen", azpimarratu du.

Halaxe jaso da Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren ohiz kanpoko bilkuran lehendakariak irakurri duen adierazpen instituzionalean. Bilkura Lehendakaritzaren egoitzan egin da gaur, Eusko Legebiltzarrak Irisgarritasuna Sustatzeko Legea onartu zuenetik 20 urte bete direla ospatzeko. Espainian eta Europan aitzindari izan zen arau horrek desgaitasunak dituzten pertsonei gizartearen eta komunitatearen bizitzan bete-betean integratzea eta parte hartzea eragozten dieten oztopo fisikoak eta komunikaziokoak desagerraraztea zuen helburu.

Legeak bere edukien garapena bultzatzeko sortutako partaidetza-organoa da Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua. Eusko Jaurlaritza, gainerako euskal administrazioak, desgaitasun funtzionalen bat duten pertsonak ordezkatzen dituzten elkarteak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak, sustatzaile eta eraikitzaileen elkartea, eta profesionalen elkargoak biltzen ditu Kontseiluak.

Irisgarritasuna Sustatzeko Legea eraginkortasunez aplikatzearen ondorioz, indarrean jarri zenetik aurrera oin berriko eraikinek irisgarritasun-irizpideak integratzen dituzte diseinatzen direnetik. Legearen ondorioa izan da, halaber, etxebizitza-sustapen berrietan, bai pribatuetan bai publikoetan, desgaitasunen bat duten pertsonentzat egokitutako etxebizitza kopuru jakin bat sartzea. Sustapen publikoen kasuan bikoiztu egin dira zuzkidurak eta hiri-espazio ugari ingurune irisgarri gisa birkonfiguratu dira, udalerriek Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta babesarekin burutu dituzten irisgarritasun-planen aplikazioari esker.

Bi hamarkada planak eta egokitzapenak egiten

Izan ere, irisgarritasuna hobetzea da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Eraikinak eta Etxebizitzak Birgaitzeko Renove programaren helburu nagusietako bat, eta horretarako bideratu ditu aurten 5,5 milioi euro. Gainera, 3,3 milioi euroko diru-laguntza eman die udalei, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeei eta onura publikoko xede sozialak dituzten erakunde pribatuei, irisgarritasun-planak egin edo eguneratzeko eta hiri-ingurunea eta eraikinak egokitzeko obrak egiteko.

"Aurrerabide handia egin dugu, baina bide luzea geratzen zaigu egiteko, eta jauzi kualitatiboa egiteko garaia iritsi dela uste dugu", azpimarratu du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolak, sail horri baitagokio legea garatzea. "Duela 20 urte, oztopo fisikoak ezabatzea eskatzen zuen marjinazioaren eta bazterketaren kontzeptutik guztiontzako irisgarritasunaren eta inklusioaren kontzeptura igaro ginen. Orain, arau hori oinarri hartuta, berdintasun soziala helburu duen irisgarritasun unibertsaleko etorkizuna definitu behar dugu, pertsona guztiek zerbitzu eta eskubide guztiak bete-betean eskuratzeko aukera abiapuntu hartuta", gehitu du Arriolak.

Hori da Irisgarritasun Unibertsalerako Euskal Estrategiaren zentzua. Izan ere, Urkullu lehendakariak bere adierazpenean nabarmendu duen moduan, "zeharka, diziplina anitzetan eta sektore anitzetan garatu behar da, guztioi dagokigulako: hasi zerbitzu publikoetatik eta etxebizitzara iritsi arte, lan-mundua, komunikazioak eta aisia tartean direla".

"Desgaitasuna duten pertsonek eskatzen duten irisgarritasunak", gehitu du, "kolektibo horien mugak gainditzen ditu, eta, hartara, pertsona guztiek aldarrika dezaketen eskari unibertsal bihurtzen da, bizitzaren esparru guztietan aplika daitekeena, Euskadi gizarte inklusiboagoa eta bidezkoagoa izan dadin, gizarte modernoagoa eta hobea".

2. eranskina

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia garatzeko eta ezartzeko lan-plana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Pleno del Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad

26 de marzo de 2018



ikei

CONVENCIÓN SOBRE LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD



Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad de las Naciones Unidas (2006)


- Primer instrumento internacional jurídicamente vinculante en el ámbito de los derechos humanos
- Exige a los Estados que protejan y salvaguarden todos los derechos humanos y libertades fundamentales de las personas con discapacidad.

Estrategia Europea sobre Discapacidad 2010-2020: un compromiso renovado para una Europa sin barreras




Capacitar a las personas con discapacidad para que puedan disfrutar de todos sus derechos y beneficiarse plenamente de una participación en la economía y la sociedad europea, especialmente a través del mercado único.





- **Estrategia Española sobre discapacidad 2012-2020**


- **Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social (Real Decreto Legislativo 1/2013)**



Accesibilidad universal:

Condición que deben cumplir los **entornos**, **procesos**, **bienes**, **productos** y **servicios**, así como los **objetos**, **instrumentos**, **herramientas** y **dispositivos**, para ser comprensibles, utilizables y practicables por todas las personas en condiciones de seguridad y comodidad y de la forma más autónoma y natural posible.

Presupone la estrategia de «diseño universal o diseño para todas las personas».



Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad

Garantizar la accesibilidad del **entorno urbano**, de los **espacios públicos**, de los **edificios**, de los medios de **transporte** y de los **sistemas de comunicación** para su uso y disfrute de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial, de carácter temporal o permanente.

Los poderes públicos promoverán la adopción de medidas de acción positiva necesarias para la efectiva aplicación de la Ley.



....hacia una Estrategia Vasca de Accesibilidad Universal

Compromiso del Lehendakari con la Estrategia Vasca de Accesibilidad Universal

< Noticias

Presidencia del Gobierno - Lehendakaritza

Euskadi se plantea el reto de impulsar la accesibilidad universal al cumplirse los 20 años de la Ley Vasca de 1997





Según la declaración del Lehendakari en el Consejo Vasco de Accesibilidad conmemorativo del 20 aniversario de la aprobación de la Ley de Promoción de la Accesibilidad (diciembre 2017):

- ✓ Es preciso que en la presente legislatura establezcamos las bases de una Estrategia para la Accesibilidad Universal en nuestra Comunidad.
- ✓ La Estrategia Vasca para la Accesibilidad Universal debe desarrollarse de forma transversal, multidisciplinar y multisectorial.

- **La Accesibilidad Universal mejora la calidad de vida de todas las personas.**
- **La accesibilidad ayuda y beneficia a todos y todas.**

La accesibilidad física: beneficia a las personas en sillas de ruedas, a las personas mayores o con muletas, a las familias con carritos de bebés,…


La accesibilidad sensorial: beneficia a las personas sordas, ciegas o mudas.

La accesibilidad cognitiva: beneficia a las personas con discapacidad intelectual, a personas extranjeras o con dificultad en el idioma, a niñas, niños o personas mayores.



- **Avanzando hacia el diseño universal o diseño para todas las personas**





Activando la Estrategia Vasca de Accesibilidad Universal

2018 → Diagnóstico de la Accesibilidad Universal de Euskadi

2019 → Directrices de la Estrategia Vasca de Accesibilidad Universal

2020 → Plan de Accesibilidad Universal de Euskadi

1er semestre de 2018

Evaluación de la situación de partida

- Concreción del alcance del Diagnóstico
- Identificación de agentes informantes
- Balance de la información disponible (Fichas)
- Detección de necesidades informativas
- Diseño de la hoja de ruta

2º semestre de 2018

Diagnóstico de la Accesibilidad Universal de Euskadi

- Diseño metodológico y Plan de trabajo
- Recogida y análisis de la información (fuentes documentales y estadísticas, entrevistas, fichas de recogida de información, encuestas, sondeos de opinión, sesiones participativas,…)
- Elaboración del Diagnóstico y Mapa de accesibilidad de Euskadi

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ikei

- **Es necesaria la colaboración y la implicación de todos los agentes para evaluar la Accesibilidad Universal de Euskadi**

Miembros del Consejo

Departamento de Salud

Uneca

elkartean

Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

Departamento de Educación

Departamento de Empleo y Políticas Sociales

ONCE

EUDEL

Departamento de Seguridad

Bizkaia

Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Álava
coaatalava

COAVN

Departamento de Hacienda y Economía

UC

Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras

Departamento de Cultura y Política Lingüística

Departamento de Turismo, Comercio y Consumo

Euskal Gorrak

eke
EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN ELKARGOA
FEDERACIÓN DE CONSUMIDORES DE EUSKADI

Departamento de Trabajo y Justicia

Posibles agentes a implicar

ararteko
DEFENSORÍA DEL PUEBLO DEL PAÍS VASCO

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

.....

1er semestre de 2018

Evaluación de la situación de partida

- Identificación de fuentes de información y agentes implicados

- Entrevistas con agentes clave

- Ficha de balance de la situación de partida para el Diagnóstico

- Sesiones de trabajo

  - Sesión 1: Pleno del Consejo
  - Sesión 2: Comisión permanente
  - Sesión 3: Grupo temático: Ámbito público
  - Sesión 4: Grupo temático: Ámbito privado
  - Sesión 5: Comisión permanente

Sesiones de trabajo 1er semestre de 2018

Pleno del Consejo

Marzo 2018

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Lugar:
- Comisión permanente: Lakua
- Grupos temáticos: Laboratorio de Control de la Calidad en la Edificación

Hora: 11:30 a 13:30

Comisión permanente

Abril 2018

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Grupo temático

Mayo 2018

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Grupo temático

Junio 2018

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Comisión permanente

Julio 2018

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Fecha de entrega de las Fichas de Autocumplimentación

Sesiones de trabajo

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ikei

Sesiones de trabajo 1er semestre de 2018

26 Mar.	Sesión plenaria	PRESENTACIÓN DEL PLAN DE TRABAJO
20 Abr.	Autocumplimentación de la ficha de recogida de información por los miembros del Consejo	
26 Abr.	Comisión permanente	ALCANCE DEL DIAGNÓSTICO DE LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL
24 May.	Grupo temático	LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL EN EL ÁMBITO PÚBLICO: Situación de partida
21 Jun.	Grupo temático	LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL EN EL ÁMBITO PRIVADO: Situación de partida
19 Jul.	Comisión permanente	DISEÑO METODOLÓGICO PARA LA REALIZACIÓN DEL DIAGNÓSTICO DE LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL EN EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ikei

Propuesta de Comisión Permanente (para su aprobación)

Organismo Miembro de la Comisión Permanente		Representante
